

67 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2021 / 10 / 24

ARAUTEGIA

1. Lehiaketa **2021eko urriaren 24an** (igandea) izango da Amorebieta-Etxanoko Jauregibarriako zelaietan eta bertan Cross-Country delakoaren bederatzilafterketa egingo dira ondoko maila banaketari eta ordutegiari jarraituz:

ORDUA	MAILA	JAIOTZE URTEA	DISTANTZIA
9:40 h.	Infantil (Sub14) neska	2008 - 2009	1.550 m.
	Kadete (Sub16) neska	2006 - 2007	
9:50 h.	Infantil (Sub14) mutila	2008 - 2009	2.700 m.
	Kadete (Sub16) mutila	2006 - 2007	
10:10 h.	Alebin (Sub12) neska	2010 - 2011	1.120 m.
10:20 h.	Alebin (Sub12) mutila	2010 - 2011	1.550 m.
10:30 h.	Emakumezko jubenila (Sub18)	2004 - 2005	3.120 m.
	Emakumezko juniorra (Sub20)	2002 - 2003	
10:50 h.	Gizonezko jubenila (Sub18)	2004 - 2005	4.700 m.
	Gizonezko juniorra (Sub20)	2002 - 2003	
11:20 h.	Gizonezko eta emakumezko paralinpikoa		1.970 m.
12:15 h.	Emakumezko absolutoa	2001 y anteriores	6.700 m.
12:50 h.	Gizonezko absolutoa	2001 y anteriores	8.700 m.

2. Espainiako Atletismo Federazioak (RFEA) lehiaketa arautegian adierazitakoaren arabera honako baldintza hauek ezartzen dira maila bakoitzean parte hartu ahal izateko:

a) Alebin (Sub12) eta infantil (Sub14) mailetan eskola kiroleko lizentzia duten Euskadiko atletak eta RFEAko lizentzia nazionala duten atletak parte hartu ahal izango dute.

b) Kadete (Sub16), jubenil (Sub18), junior (Sub20) eta absoluto mailetan Espainiako Federazioko lizentzia nazionala duen edozein atletak parte hartu ahal izango du. Espainiako Federazioaren lizentzia nazionala edo Euskadiko Federazioko lizentzia autonomikoa duen Euskadiko edozein atletak ere parte hartu ahal izango du. Dena dela, maila hauetan bi sailkapen egingo direla adierazten da. Sailkapen ofizialean bakarrik agertuko dira Espainiako

67 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2021 / 10 / 24

Federazioaren lizentzia nazionala dutenak. Beste sailkapen bat egingo da parte hartu duten atleta guztiekin eta sailkapen hau erabiliko da sari banaketa egiteko.

c) Maila paralinpikoko parte hartzaileak Kirol Egokituaren Federazioak adierazitakoak izango dira.

3. Izen emateak kadete, jubenil, junior eta maila absolutuan Espainiako Atletismo Federazioaren Extranet-ean egingo dira eta alebin eta infantil mailetan **cdzornotza.eus** web orrialdean urriaren 19ko 24:00ak baino lehen (lehiaketaren egunean ez dira inskripziorik onartuko). Izen emate guztietan datu hauek adierazi beharko dira: IZENA, BI ABIZEN, JAIOTZE URTEA, MAILA, CLUB edo IKASTETXEA, FEDERAZIOA eta BAIMEN ZENBAKIA.

Maila paralinpikoan Kirol Egokituaren Federazioaren ordezkariak egingo dute inskripzioa.

4. Dortsalak lehiaketaren egunean emango dira zirkuitoko sarreran.

5. Dei ganbaratik pasatzea ezinbestekoa izango da atleta guztientzat ezagutzera emango diren ordutegietan.

6. Buelta galtzen duten atletek **DERRIGORREZ** utzi beharko dute lasterketa.

7. Erreklamazioak lehenbailehen Epaille Nagusiari aurkeztu behar zaizkio, emaitzak publiko egin ondoren 30 (hogeita hamar) minutu pasa baino lehen.

8. CLUB DEPORTIVO ZORNOTZAK ez du erantzukizunik hartzen atletek lehiaketan zehar edo lehiaketaren ondorioz jasan dezaketen kalte fisiko edo moralei dagokienez.

9. Arautegi honetan ez aurreikusitakoa Antolatzaile Batzordeak erabakiko du RFEAko eta World Athletics-eko arautegiei jarraituz.

10. 67. NAZIONARTEKO ZORNOTZAKO KROSean parte hartzeak arautegi honen onarpena suposatzen du.

Amorebieta-Etxanon, 2021eko irailean

67 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2021 / 10 / 24

HERRI LASTERKETAREN ARAUTEGIA

1. Lasterketa **2021eko urriaren 24an** (igandea) izango da Amorebieta-Etxanoko Jauregibarriako zelaietan 11:35ean bere distantzia 4.700 m.-koa izango delarik.
2. 2003. edo aurreragoko urteetan jaiotako edozeinek parte hartu dezake.
3. Izen emateak **cdzornotza.eus** web orrialdean egingo dira urriaren 19ko 24:00ak arte. Gehienez hirurehun (300) pertsonak parte hartu ahal izango dute. Inskripzioaren kostua (gastuak ordaintzeko) **BOST EUROKOA (5€)** izango da eta Kutxabank-en ES40 2095 0023 58 2023010424 kontuan sartu beharko da. **Lasterketaren egunean ez dira inskripziorik onartuko.**
4. Dorsalak lehiaketaren egunean emango dira zirkuitoko sarreran diru sarrera egin izanaren agiria aurkeztu ondoren.
5. CLUB DEPORTIVO ZORNOTZAK ez du erantzukizunik hartzen atleten lehiaketan zehar edo lehiaketaren ondorioz jasan dezaketen kalte fisiko edo moralei dagokienez.
6. Arautegi honetan ez aurreikusitakoa Antolatzaile Batzordeak erabakiko du RFEAko eta World Athletics-eko arautegiei jarraituz.
7. 67. NAZIONARTEKO ZORNOTZAKO KROSaren herri lasterketan parte hartzeak arautegi honen onarpena suposatzen du.

Amorebieta-Etxanon, 2021eko irailean